

Abuztuaren bukaerara arte **% 21eko** hazkundea izan zuen kudeatutako fondoen **ondareak**

Kutxabankek 20.000 milioi euroko langa gainditu du inbertsio-fondoetan

- **Kudeatutako ondareari dagokionez, merkatuko laugarren postuan kokatu da**
- **1.817 milioi euroko harpidetza garbiak lortu ditu aurten, merkatuko sarrera berri guztien % 10,1**

2021eko irailaren 14an. Kutxabank Taldeak 20.309 milioi euroko langa gainditu zuen abuztuaren amaieran inbertsio-fondoetan kudeatutako ondareari dagokionean. Beraz, **% 21eko** igoera izan zuen iazko hilabete berarekin alderatuz gero, eta guztira **6.000 milioi** euro hazi da azken lau urteetan. Honekin guztiarekin, Taldeak merkatu-kuota bereganatzen jarraitu du, inbertsio-funtsen merkatu osoaren **% 6,62** kudeatzen baitu gaur egun.

Inbertsio-fondoetan inbertitutako ondarearen arabera, finantza-industria honetan izan den hazkunde nabarienetakoa da, eta Taldeak aktiboak kudeatzeko duen eredian merkatuaren konfiantza erakusten du.

Sarrera garbiei dagokienez, Kutxabankek hilabeteak daramatza inbertsio-fondoan merkatuko buruan, hain zuzen ere alorreko hirugarren hazkunde handiena izan zuen abuztuan. Ondarearen hazkunde hau **izenpetze garbien** kopuru handiarengatik eta errealizazioen hazkundearengatik jazo da funtsean. Ondorioz, merkatuko **laugarren talde handiena** da Kutxabank, fondoetan kudeatutako ondarearen ikuspegitik.

Abuztuaren bukaeran, harpidetza garbien bolumena **1.817 milioi** eurokoa izan zen, alorrak kudeatu duen bolumen osoaren **% 10,1**, Kutxabanken berezko merkatu-kuotaren ia bikoitza.

ASG fondoetan liderrak

Kutxabank finantza-sistemako lehen Taldea izan da merkaturatzen dituen inbertsio fondo guztietan ingurugiro eta gizarte irizpideak bateratzen.

Ingelesezko siglen arabera SFDR' izeneko araudia indarrean jarri baino hilabete batzuk lehenago, Kutxabank Gestion merkatuko lehen kudeatzailea izan zen merkaturatzen dituen inbertsio fondo guztiak araudi berriaren 8. mailan egokitzen.

Konpromiso honen arabera, bere inbertsio-estrategiak ASG esparruan errendimendu onena duten enpresak saritzen ditu. Horretarako, Kudeatzaileak ASG irizpideekin barneko kalifikazio sistema bat ezarri du, enpresen egungo egoera jasangarritasunaren arabera baloratzeko eta sektoreko eta eremu geografikoko testuinguruan horien bilakaera aztertzeko.

Jasangarritasun irizpideen araberako inbertsioak beti egon dira Kutxabanken, baita unean uneko araudiak indarrean jarri aurretik ere. Horren erakusle da Kutxabank Gestioneak 15 urte baino gehiago daramatzala fondo etiko eta solidarioa merkaturatzen, eta duela ia hamar urte bere BGAEek sozialki arduratsuak diren inbertsio politikak aintzat hartu zituztela.